



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

8. ARDATZA ETXEBIZITZA BABESTUEN PARKEAREN GIZARTE FUNTZIOA BERMATZEA

8.1 HELBURU NAGUSIAK

- Etxebizitza babestuaren parkearen gizarte-funtzioa areagotzea bere bizitza erabilgarri osoan zehar.
- Etxebizitza babestuaren eremuan iruzurraren aurkako apustuari eustea.
- Etxebizitza babestuaren parkearen kontzeptua sozializatzea, euskal herritarren egungo eta etorkizuneko gizarte-premien zerbitzura.
- Etxebizitza babestuen eta eskatzaileen premien ezaugarrien arteko doikuntza hobetzea.

8.2 JARDUN ILDOAK

Iruzurra saihesteko dagoeneko hartutako neurriei balioa ematea

- 2002-2005eko Planean oso neurri garrantzitsuak hartu ziren etxebizitza babestuko sustapenetan iruzurra saihesteko, hala nola: sustapen guztietan esleipen-sistema gisa zozketa erabiltzea, babes ofizialeko erregimenaren etengabeko kalifikazioa, etxebizitza babestuko eskualdaketa guztietan lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzea, bigarren eta ondorengo eskualdaketen kontrola, notario eta erregistratzaileen papera, Lurralde ordezkarietzako bisatuak, etxebizitza babestuaren parkea ikuskatzeko zereginak martxan jartzea (eta zigorrak ezartzea, urratzeak baldin badaude), edo alokairuko erregimena eta azalera-eskubidea sustatzea jabetzaren aurrean.
- Ahalegin horiek guztiak, eta 2006-2009ko Planean martxan jartzen diren guztiak, gizarteari modu egokian aurkeztu behar zaizkio, ezagutzeko eta Eusko Jaurlaritzak eta erakunde guztiek gizarte-funtzioa bermatzeko eta babes publiko etxebizitzaren parkean iruzurra saihesteko egiten duten ahalegina baloratzeko.

Etxebizitza babestuan iruzurra antzeman eta zigortzeko ahaleginak areagotzea, egungo ikuskapen-zigor zerbitzua sendotuz, osorik publiko bihurtuz, eta beharrezko baliabideak emanez

- Hala ere, oraindik hartu beharreko neurri garrantzitsu asko geratzen dira, eta Eusko Jaurlaritzak 2006-2009ko Plan honetan adierazi nahi du etxebizitza



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

babestuan dagoen iruzurra erabat ezabatu nahi duela. Borondate hori ikuskapen-sistema indartuz eta iruzurra zigortuz gauzatuko da.

- Aurreko 2002-2005eko Planean etxebizitzaren ikuskapenerako zerbitzu publikoaren sorkuntzan lehen aurrerapenak egin ziren, eta horiek 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planean sendotuko dira etxebizitza babestuaren ikuskatzaile-kidego bat sortuz. Horretarako, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ikuskapen-zerbitzu horren eraginkortasuna hobetzen lagundu dezaketen beste agente batzuekin lankidetzan jardungo du (udaletako eta erkidegoko agente publikoak, zerbitzu publikoen eta etxeko hornigaien konpainiak, eta abar).
- Bestalde, zigorren atala indartu egingo da epe laburrean onartuko den Etxebizitzaren Legean bilduta dagoen zigor-erregimen berriaren bitartez.

Azalera-eskubidearen erregulazioan aldaketak aztertzea, azalera duen pertsonak zenbait gizarte- eta ekonomia-baldintza betetzeko etxebizitza babestua erabiltzen duen bitartean

- Azalera-eskubidean aldaketak sartzeko aukera proposatu da, etxebizitza babestuaren iraunaldi guztian beren gizarte-funtzioa indartzeko. Besteak beste, azalera-eskubidea aldatzeko komenigarritasuna baloratu da, azalera-eskubidean gozaten dituzten pertsonak dituzten etxebizitza babestuen erabilera-baldintzetan mugak jartzeko.
- Printzipioz, oso kasu nabarmenetan bakarrik jardungo da, etxebizitza babestu bat lortu duten pertsonen egoera ekonomikoa hobetzea positiboki hartzen baita, aniztasuna sartzen duen eta sustapen babestuak beren ingurunetan gizarteratzea sendotzen duen elementua delako.
- Sustatzaile pribatuek eta Udalek jabetza osoan lagatako Etxebizitza babestuetarako antzeko neurriak eta antzeko helburuarekin sartzea aztertuko da.
- Bestalde, beharrezkoa dirudi azalera-eskubidearen erregulazioa aztertzea beste atal batean, adibidez lehentasunez erosteko edo atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzen den etxebizitzaren hondar-balioaren kalkulua edo azalera-eskubidedunen epe ertain eta luzerako lege-egoera.

Etxebizitza babestuko parkean trantsizioa egiteko aukerak zabaltzea eta hori bideratzeko mekanismoak hobetzea

- Etxebizitza babestua aldatzeko aukerak oso egoera berezietara mugatuta daude, alokairuko etxebizitza babestu bat duten esleipendunek azalera-eskubideko erregimeneko etxebizitza bat lortzeko aukera salbu (haien diru-



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

sarrerak horretarako nahikoak direnean), eta esparru geografiko desberdinetako esleipendunen artean etxebizitza babestuen truke egiten denean salbu.

- Hala ere, ikusi da gaur egun estali gabe dauden zenbait aldaketa-premia daudela, eta etxebizitza babestuaren parkearen gizarte-funtzioa bermatzeko helburua betetzeko, etxebizitza-politika publikoen erantzunen bat izan beharko lukete (adibidez asko handitzen diren familiak). Horregatik, etxebizitza babestuko parkean trantsiziorako aukera asko aurreikusten dira, baita prozedura estandarizatuagoak eta salbuespenetik kanpokoak garatzea ere.

9. ARDATZA PREMIA BEREZIA DUTEN KOLEKTIBOEN TRATAERA ESPEZIFIKOA

9.1 HELBURU NAGUSIAK

- Biztanle-kolektibo kaltetueneren, premia-egoera larrian daudenen eta/edo eskatzaile-kolektibo berrien bizitegi-premiei erantzutea.
- Eusko Jaurlaritzaren jardunei ahalik eta etekinik handiena ateratzea, beste gizarte-agente batzuekin koordinatuz.

9.2 JARDUN ILDOAK

Diskriminazio positiboko politiken xede diren kolektibo berrien identifikazioa eta definizioa

- Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren bitartez, 2002-2005eko Planean ezarritakoarekin bat eginik, zenbait gizarte-kolektiboaren diskriminazio positiborako jardun-politika bat garatu du dagoeneko: 35 urtetik beherako gazteak, seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak, mugitzeko ezintasuna duten pertsonak, familia ugariak, genero-indarkeriaren biktimak, eta Etxebiden lau urte baino gehiago erregistratuta dauden pertsonak.
- Hala ere, EAEn izandako errealitate sozioekonomikoaren aldaketen, inguruko arau eta legeen aldaketen (Autonomia Pertsonalaren eta Mendetasunaren Legea epe laburrean onartuko da) eta Eusko Jaurlaritzaren aukeren bilakaeraren ondorioz, 2006-2009ko Planak politika horien ikuspegia zabaltu nahi du, diskriminazio politikan kolektibo berriak sartuz: 65 urtetik gorakoak, dibortziatuak/bananduak, bestelako ezintasunak dituztenak (sentsorialak, adimenekoak...), etxebizitza desegokien titularrak, bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboak...